

HERNANI BHI  
**Institutua**  
 BATXILERGOA

● /2018-V- 10 osteguna /



■ IRITZIA

# Hezkuntza sistemaren funtzioa kapitalismoan

Hezkuntza sistema aparatu ideologikoen tresna nagusia da gizarte kapitalista sortu zenetik. Honen zergatia azaltzen saiatuko naiz, analisi zehatz batetik abiatuz.

Lehenengo eta behin, jakin behar dugu gizarte kapitalista bi klaseetan banatzen dela: burgesia eta langileria. Beraz, burgesiak bere instituzio errepresibo eta ideologikoak erabiltzen ditu, haien pribilegioak mantentzeko eta sistema bera erreproduzitzen jarrai dezagun

(gainbalioaren sorrerarekin eta harreman sozial kapitalisten erreproduzioarekin). Beste modu batean azalduta, klase dominanteak, alegia burgesiak, klase dominazioa mantentzen jarrai dezan tresna batzuk erabiltzen ditu, esaterako familia, lana, kontsumora bideratuta dagoen aisialdia... (aparatu ideologikoak forma errepresiboa har dezake, kasuz kasu).

Hezkuntza aparatu ideologikoan koka genezake, honen

helburua sistema erreproduzitu dituen subjektuak sortzea baita, hau da, langileak. Horregatik, ikasleak langile klasearen partaideak gara (langile potentzialak gara eta). Hezkuntza sistemak logika kapitalistak dituen balore lehiakorak, egozentrikoak... , besteraten ditu, ikaslea pertsona alienatu bat izan dadin. Horrela ez du bera barnebiltzen duen dominazio sistemaz hausnartuko, eta subjektu aktibo bat izango da etorkizunean.

Beste era batean esanda, gainbalioaren ekoizpen prozesuan, lan modalitate askok hartzen dute parte: lan fisikoa, lan intelektuala, objetibatzen den lana eta materializatzen ez dena, hauek guztiak ezinbestekoak dira kapitalaren produktiorako edo gainbalioen ekoizpenerako; alegia, kapital produktiboak subsumitzen ditu kapital aldagarri gisara eta prozesu horretan ditugun zereginak determinatuko dute gure klase soziala.

Azterketa arrotzak, PISA, errebalidak, selektibitatea..., ikasleokiko eraso zuzenak dira, adoktrinazio zuzena, honekin esan nahi dudana zera da: estatuak bere forma burgesean, azterketa hauek erabiliko ditu, ikasle guztiongan hainbat balore, eduki kapitalista eta patriarkalak sustatzeko, eta hauen kritikotasuna zapaltzeko. Adibidez, errebalidek orain-

dik eta mailakatze handiagoak bultzatuko ditu, hezkuntza ahalik eta elitistena bihurtuz. Hor ikus dezakegu norentzako dagoen hezkuntza mota-diseinu hau, hots, klase kapitalistarentzat.

Hau azalduta eta bukatzeko, hezkuntza ez dago langile klasearen mesedetara, izan ere, burgesiaren tresna bat da haien interesak babesteko. Honen aurrean ezin dugu batzuek egiten duten joko erreformista barneratu, hezkuntza sistema kapitalistaren gaintzea ezinezkoa delako kapitalismoaren barruan, desjabetuon hezkuntzaren eraikuntza, komunismoaren eraikuntzarekin baitator, eta etorriko da. ■

Egilea:  
 Ur Joanex Artola Vazquez

I ELKARRIZKETA

# Hernani BHIko Ikasleen Euskara Batzordea

*Apirilak 17an Hernaniko institutuko Euskara Batzordeko ikasleekin elkartu gara lan-bilera bat egiten ari ziren bitartean.*

Talde hau ikasleen eskaera batengatik sortu zen duela hamar urte gutxi gorabehera. Ikasleek euskararen erabilera aldetik gabezi bat ikusten zuten, eta ikastetxean euskararen erabilera sustatuko zuen talde eragile bat sortzeko beharra sumatu zuten. Hori dela eta, ikastetxeko zuzendaritza taldekoekin bildu ondoren, eta euskara irakasle dinamizatzailearekin elkarlanean urtero osatu da Ikasleen Euskara Batzordea.

Gaur egun taldea hiru zaitan banatzen da eraikinararen arabera; ikasle talde bat, Santa Barbara eraikinean dago, bertan, DBH 1 eta DBH 2ko ikasleak daude. Bigarren taldea Harrobi eraikuntza berri biltzen da eta DBH 3ko ikasleek osatzen dute. Eta azkenik, Agustin Iturriaga erainkuntzan biltzen direnak, DBH4ko eta Batxilergoko ikasleak dira.

Gu hirugarren talde honetako partaide batzuekin bildu gara (Batxilergokoak, hain zuzen ere). Maila guztietan dinamika bera da, baina partaideen adina kontuan hartuta badaude zenbait ezberdintasun. Ikasturte hasieran ikasgela bakoitzean Euskara Batzordeko ordezkari bat aukeratzen da, eta ordezkari guztiek taldea osatzen dute euskara-irakasle dinamizatzaile baten laguntzaz.

## **Zein da taldearen helburua?**

Talde hau ikasleek Institutuko euskararen erabileraren gaineko lanketa bat beharrezkotzat jotzen zutelako hasi zen duela urte batzuk. Lekukoa pasatzen doa urtero, eta helburua ez da aldatu; Institutuko ikasleen euskararen erabileraren egoera diagnostikatzea, hausnartzea eta hobetzeko neurriak hartzea.

## **Aurten zein ekintza egin dituzue? Eta etorkizunari begira zer egiteko asmoa duzue?**

Ikasturtero gutxienez bi ekintza nagusi egiten ahalegintzen

gara: bat abendua aldean (Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan); bestea udaberri aldean, Korrika egiten den urteetan bigarren ekintza hau antolatzen laguntzen dugu (Korrika Gaztea), eta Korrika ez dagoenetan (aurten bezala) ekimen berri bat sortu ohi dugu.

Aurten Euskararen Nazioarteko Eguna aprobetxatu dugu Batzordeko ikasleok, Gazteetako Hitzarrik taldekideez lagunduta, prestakuntza-trebatze saio pare bat jasotzeko, ondoren klase ordu batzuk antolatu genituen DBH 3-4 eta batxilergoko ikasleekin euskararen egoeraren hitz egiteko eta hausnartzeko.

Aurten Korrikarik ez dugunez, Ikasturte bukaerari begira, euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailer bat jaso genuen (Euskalzaileen Topaguneak bideratura) DBH 4ko eta batxilergoko euskara batzordeko ordezkariok, eta hurrengo asteetan jasotako prestakuntzaz baliatuz DBH 1 eta 2 mailako ikasleei guk geuk emango dizkiegu azalpenak. Horrez gain, aurten, ikasgeletan inkesten bidez egin diren hizkuntzen mintzagramak aztertu eta zabaldu ditugu ikasleen artean.

**Ikastetxean euskararen erabilera sustatuko zuen talde eragile bat sortzeko beharra sumatu zuten ikasleek.**

Bestalde ikasturtean zehar egiten dugun hainbat ekintza ere jarraitu dugu aurrera eramaten, hala nola, abenduan Udal Euskaltegiak antolatzen duen mintzodromoa dinamizatzen eta parte hartzen, Hernaniko Udalak sustatutako Irakurrituz Gozatu ekimena bultzatzen (Ikasleak Gaztezulo aldiakaria jaso eta irakur dezaten), Hernaniko Kronikarekin elkarlanean (egunero haren presentzia izateko ikastetxean eta Ikasleen Txokoa gehiga-



Batzilergoko ikasleen taldea

rrietan parte hartuz)...

Etorkizunari begira ikasle gazteek lekukoa gogoz jasotzea espero dugu irekitako bidean aurrera egiten jarraitzeko, amore eman gabe.

Institutuan azken urteotan gaztelaniara jotzeko ohitura handitzen ari dela iruditzen zaigu, batez ere ikasle gazteenetan. Euskararen erabilerari buruz egindako zenbait inkestek hori baieztatzen dute (lehen aipatutako mintzagrametan, esate baterako). Hori dela eta, saiatu gara antolatzen prestakuntza saioak euskararen erabilera soziala bultzatzeko (kanpoko eragileek egindakoak) eta herriko gazteek bideratutako prestakuntzatrebatze saioak.

Hernaniri dagokionez, urte urte ezagutza handitzen doan arren, arazoa erabileran dagoela uste dugu, batez ere gazteen artean. Hala ere, gu Institutuko egoera lantzerantz mugatzen gara, herriko talde desberdinekin harreman onak eta hainbat lankidetzak izan arren.

## **Etorkizunari begira, nola ikusten duzue euskara?**

Euskararen etorkizunaren gainean bi iritziz jaso ditugu:

batetik, euskarak gero eta hitz-tun eta baliabide gehiago dituela diotenek, bide onetik gozela, baina kontzientziafalta dela uste dutenek. Bestetik, etorkizuna ilun ikusten dutenek, ehunka ekimen martxan jartzen diren arren, benetako arazoari ez zaiola aurre egiten, eta agintariak ez dutela egoera aldatzeko ahaleginik egiten diotenak.

**Hernanin euskaraz hitz egingo ez balitz, ez litzateke Hernani izango, edo beste Hernani bat izango litzateke.**

## **Hernanin, ekimen bat dago martxan, 'Baietz Hernanik', Euskara ari du elkarteak sortutakoa. Gazteongan nahiko eragin izan duela uste duzue?**

Ekimen hau gehien bat helduengana bideratuagoa dagoela iruditzen zaigu. Gure ikastetxera etorri ziren antolatzailak ekimena azaltzera, baina ez dute gazteongan iristea lortu. Datorren ikasturteari begira, eta kontutan izanda Baietz Hernanik!,

erronka ikasturte bukaerara arte duela, Institutuan ekimen honetan parte zabala izateko kanpaina bat prestatzeko asmoa aztertu dugu, baina egia esan orain arte ez da gure artean gehiegi hitz egin den gaia.

Erronkalari gazteek ere parte har zezaten 15 urtera jaitzi zen erronkan parte hartu ahal izateko adina, baina gero ez dugu gertutasunik sumatu jende gaztea biltzeko. Hala ere, hilabete honetan (maiatzean) DBH 4. eta 3. mailako ikasleen artean landu beharreko gaia izango da, ea oinarri batzuk jartzen ditugun orain, hurrengo ikasturteko hasierako lau hilabeteetan (irailtik abendua bitartean) bultzada handi bat emateko ekimen horri gure ikastetxetik.

## **Egunerokotasuna, bizitza, gure hizkuntza, oasia, berdea...**

Hernanin euskaraz hitz egingo ez balitz, ez litzateke Hernani izango, edo beste Hernani bat izango litzateke.

## **Eskerrik asko, eta segi lanean orain arte bezala. ||**

*Egileak: Amaia Altuna Etxabe eta Miren Lopez Arrieta*

LIBURU IRUZKINA

# Fahrenheit 451, Brave New World eta 1984

XX. mendeko hiru distopia nagusiak, alegia, Fahrenheit 451, Brave New World (Bai mundu berria) eta 1984, distopia hutsak direla pentsatu izan da, errealitatek at daudela eta, gogoeta mamitsua sorrarazteaz gain, ez dela errealitatearen isla, fantasia baino ez. Pentsamendu horien aurka, nobela horiek geroz eta antza handiagoa dute errealitatearekin. Liburuz liburu alderaketa bat egiten ahaleginduko naiz, sistema horiek eta gaur egungoak hain ezberdinak ez direla ikusarazteko.



Lehenik eta behin, **Ray Bradbury-ren Fahrenheit 451** liburuarekin hasiko naiz. Jakina den bezala, 451 F° dira papera erretzen hasten den tenperatura, eta, gaur egun, boterea kolokan jartzea da liburuak desagerrarazteko behar den osagaia. Nobela honetan, liburuak infernuko kontutzat daude hartuak; inor ez da liburuaz interesatzen, eta are gehiago, liburuaren bat ikusiz gero, sua eman edo "suhiltzaileei" deitzen diete, hitz bildumak desagerrarazi ditzaten.

Gaur egun, noski, ez da liburuaren aurka horrela jokatzeko, baina, ez al da bitxia belaunaldi bakoitzak gutxiago irakurtzea? Ez al digu gizarteak liburuaren gutxiespen mental bat eragiten? Telebistak eta Internetek sortutako gain-informazioak, pentsatu eta harremantzeko modu produktibistak eta drogaren kontsumoa bultzatzen duen gizarteak geroz eta leku txikiagoa uzten diote literatura kritikoari.

Halaber, liburu kritikoak ez ezik pentsamendu eta ideologia erradikalak ere, ez nahastu muturrekoekin, erre egiten dira, ezin da horiei buruz

pentsatu, eta "pertsona arruntak" haien artean salatzen dira norbait susmagarritzat joz gero.

Hurrengo liburua, **Aldous Huxley-ren Brave New World**, euskaraz Bai Mundu Berria izenburuarekin itzuli zena, gaur egungo gizarte kapitalistaren isla fidela izatean biratu da, nahiz eta nobelan gizakia beraren biologia eta genetika aldatzeak eta kastetan banatzeak alderaketa nahasi dezakeen.


Liburu hau irakurri duenak jakingo du bertako distopiaren oinarria gain-estimulazioan oinarritua dagoela, eta metodo horren bidez lortzen dutela sistema bere horretan mantentzea, inork ideia subertsiborik izan ez dezan.

Egungo gizartearekin alderaketa xume bat eginez ulergarria da zerikusia aurkitzea, baina zalantzak bazeuden, hona hemen datu harrigarri batzuk:

Kaliforniako Unibertsitateko ikerketa baten arabera, gizarte garatu batean bizi den pertsona batek, batez beste, 34GB informazio jasotzen ditu egunero, eta, aldi berean, 100.000

hitzetik gora entzun eta ikusi.

Datuak alde batera utzita, argi dago iragarki multzo bat jasotzen dugula kaletik ibili, telebista ikusi edo Interneten nabigatzean, eta honek gehiegizko informazioa jasotzea eragiten digu. Aldi berean, mugikorrekiko dependentzia, nomofobia deiturikoa, nahiko zabaldua dago gaur egungo gizartearen; izan ere, ez da arraroa gazteon artean, sare sozialetan eduki oso ezberdineko post batetik bestera oso azkar eta denbora luzean zehar igaro oste-



an, begirada altxa eta hutsa helarazten duen sentimendu batek gorputza zeharkatzea.

Hau gertatzean, nobelan "soma" deituriko droga bat sartzen da jokoan. Instagram, Facebook, Interneteko apustuak, reality show-ak eta telebistako programa idealizatuak dira gaur egun daukagun soma, burua eta gorputza arindu eta lanari lotutako ziklo kapitalista hau jasatea baimentzen diguna.

Erromatar Inperioan Panem et circenses zegoela zioten, baina badirudi gaur egun geroz eta ogi gutxiago eta zirku gehiago dagoela.

Azken liburua, **George Orwell-en 1984**, zeinak SESB-en endekapen totalitario bat irudikatzen zuen, klasiko distopikoetatik latz eta errealea dela esan daiteke, eta baieztapen hori ez dabil errealitatek oso urrun.

Nobelan agertzen den gizarte edo estatu poliziala, herria kontrolatu eta erreprimitzen duena, munduko potentzia ekonomikoek, eta baita ez hain herrialde boteretsuek ere, erabiltzen duten politikaren oso antzeko da. Ikusi besterik ez dago 2017ko G-20-aren aurka antolatutako manifestaldi masiboaren aurrean estatu europarrek erabili zuten dispositibo militarra, Frantziako ZAD-etik bertako biztanleak aterarazteko egun hauetan erabiltzen ari diren milaka polizia, zatikatze-granada eta granada negar-arazleak eta Espainiar estatuan hainbat artista eta militante jasaten ari diren errepresio judiziala.

Liburuan agertzen diren ministerio ezberdinen artean, Egiaren Ministerioa dago, herriarrek jaso dezaketen informazioa nahierara moldatzen saiatzen dena. Gaur egun, hau, argi eta garbi, hezkuntza formal eta komunikabideen eraginez egiten da.

Ez al da bitxia testu liburuaren diktadura frankistaren informazio urria egotea, joandako mendeko hirugarren ha-

markadako Espainiako iraultzak Historiako liburuetan ezta aipatzea ere eta Ekonomiako liburuetan sozialismoaren aurkako iritziak agertzea? Ez al da bitxia komunikabideek Venezuelako berriak, irudien kalitatea jaisteaz gain, etengabe ematea eta Yemeneko gerra hasi zenetik, duela lau urte, berri bakar bat ere ez ematea?

Hau guztia, zalantzarik gabe, Egiaren Ministerioak betetzen zuen funtzioaren oso antzekoa da.

Pentsamenduaren polizia, 1984 liburuaren estatuaren beste aparatua errepresibo bat, herriarrek pentsamenduak kontrolatzeko helburuarekin sortu zen. Honela, pentsamendu horiek ekintzara pasa aurretik suntsitzea lortzen dute. Hau ez da motz geratzen egungo munduarekin alderatuta; alabaina, liburuan bezala, eremu publikoa kameraz josia dago, gure pribatutasuna lapurtuz, eta hain presentzia soilarekin gure ekintzak baldintzatuz.

Badirudi, nobelan ez bezala, gure etxeetan, hau da, eremu pribatuan, askatasuna dugula eta ez gaudela kontrolpean, baina ezin ginatze erratuago egon; XXI. mendean, smartphone-ak gure eremu pribatuan sartzearekin batera, enpresek, eta hortaz, estatuak, gure informazio eta egoera jakin dezakete une bakoitzean.

Gainera, Google bezalako enpresek guk Interneten egingadako bilaketa, jaso eta bidalitako posta elektronikoa eta gustu guztiak dituzte haien esku, eta informazio baliotsu hori guztia saldu egiten diote gobernu eta beste enpresei, gu ezagututa nahi duten moduan txotxongiloak bezala gidatzeko.

Ezaguna da, bestalde, Facebook-ek erabiltzaile bakoitzari iritsiko zaizkion sarreraren artean aukeratzen duela, pertsona horien pentsaera aldatzeko asmoz.

Winston Smith, liburuaren protagonista, 101. gelan sartu

eta bertan torturatu egiten dute bere pentsamenduak alde batera uzteko. Espainian eta beste herrialde askotan tortura kasu ugari egon dira polizia-etxeetan, eta kasu horietako batzuk estatu-arteko salaketak jaso dituzte, Nazio Batuen, Amnistia Internazionala eta Human Rights Watch-en alde-tik.

Azkenik, George Orwell-en nobela honetan neohizkera bat dago, soziolinguistikaren oinarriak hartuz pertsonen pentsamenduak baldintzatu nahi dituen, biztanleriak askatasunez desira eta pentsa ez dezan, hitzen nahi ez diren esanahia ezabatuz.

Oraindik ez da hizkuntzak aldatzeko bezainbeste botere duen instituziorik sortu, baina komunikabide, politikarien hizkera eta hezkuntzan, alegia, kapitalaren aparatu ideologikoetan, hizkuntzaren bidez pentsamenduak nahasi edota aldatzen dituzten hitzak era-

biltzen dira.

Esaterako, komunikabideetan emakumeak (dirudienez haien kabuz) hil direla esaten dute gehienetan, errealitatea gizon batek erail dituela de-nean.

Politikarien esaldi asko errealitatea hizkuntzaren bidez makilatzen saiatzen dira, *“todo es falso, menos algunas cosas”* eta *“no es un rescate, es una línea de crédito”* bezalako esaldiak erabiliz.

Hezkuntzan, aldiz, komunismoa Kuban, Ipar Korean eta SESBen zegoen sistema dela erakusten da, berez estatu horiek estatu sozialdemokratik besterik ez direnean, komunismoarekin loturarik ez dutenak, eta, izatekotan, sozialismoarekin alderatu zitezkeenak. Gizarte mailan, aldi berean, testu liburuetan ia aipatzen ez da eta, anarkismoa anabasarekin lotzen da; izan ere, hiztegian hitz hori bilatuz gero *“anabasa”* da aurkitzen

den adiera bat.

Sintesi bat eginez, hiru liburuek gaur egungo sistema, modu batean edo bestean, islatzea lortu zuten: Lehenik, ikasi nahi ez izatea, alferkeria inposatua, sartzen da jokoan, Fahrenheit 451 liburuaren oinarria.

Gauzak lotuagoak uztearren, Huxley-ren gain-estimulazioa erabiltzen da, biztanleria, gurasoek ume txikiekin egiten duten erara, jostailuekin entretenitzeko eta egoera sozioekonomiko eta politikoa aldatzearen aldeko pentsamenduak izateko denbora ez izateko. Eta azkenik, lehenagoko biek ez badute haien lana egin, Anai Handiak hartzen du parte, bere erreminta eta txakurrak erabiliz ardi guztiak dagokien hesira itzulazteko. ■

Egilea: Andoni Rey Ortiz



## I DENOK EUSKARAZ

# Donibane Garazira egindako irteera express baten kronika

Goizean goiz irten gara Hernanitik. Autobus-bidaian ordu erdi daramagu eta *“larre berdeak etxe txuri teila gorriak”* ikusten ditugu leihoaz bestaldean, edota errepide bazterrean bidelagun dugun Errobi ibaiak ere harrera egin digu mugaz bestaldeko Euskal Herrian.

Autobusa uste baino arinago iritsi da Donibane Garazira. Batxilergo bigarren mailako ikasle eta irakasleak astelehenero antolatzen den azokara iritsi gara. Autobusetatik jaitsi eta merkatuko sarreran batu gara guztiak. Une horretatik aurrera, martxa; hango euskara ezagutzera abiatu gara, elkarriketa, solasaldi, gaizki ulertu eta elkarguneekin gozatu.

Taldeak eginda eta kamera eskuan hartuta merkatuan sartu gara. Nekazari, eztigile, gaztagile, eta beste hainbat pertsonarekin hitz egiteko aukera izan dugu, ez da lan makala izan! Solasaldi ugari, benetan aberasgarriak. Askok ez genuen Garazi ezagutzen eta are gutxiago euskararen errealitatea zein zen. Herriko hainbat proiektu ezagutzeko aukera izan dugu bertatik bertara: Irulegi Irratia, AEK eus-

kaltegia eta Garaziko Ikastola. Talde handia izanik, aukeratu beharra izan dugu eta bakoi-tzak leku bat ezagutzeko aukera izan du.

Irulegi irratan egondakoek hango esatari Kattalin Indabururekin eta bere lankide batekin egon gara. Harrera beroa izan da, kanpoko euritea jadanik galtzerdietan nabaritzen dugu, eta etxe-giroa baino hobe, zer? Irratia erakutsi, beraien ibilbidearen berri eman eta euskarazko hedabideen garrantziaz ere hitz egin digute.

Ikastolara joandakoek umeekin jolasak antolatu ditugu. Gustura aritu gara harrapaketa-jolas eta abestiekin, une oso hunkigarria, euskaraz bizitza izan baita batu gaituena.

Euskaltegian egondakoei berriz, euskararen transmisioaz eta alfabetatzearen garrantziaz hitz egin digu Maialenek, hango irakasleak.

*“Irteera Express-a”* bukatzeaz dagoela, autobusera igo gara berriz, Hernanirantz. Euri tantak gurekin soinean daramatzagu, blai gaude. Eta zergatik ez?, euskara ari du! ■

Egileak:

2. batxilergoko ikasleak

